


EUSKAL HERRIA-SENEGAL, MIGRAZIO BIDEA

Patxi Gaztelumendi

Hegazti Migratzaileen Nazioarteko Eguna izan zen maiatzaren 11n; Errefuxiatuen Eguna izango da ekainaren 20an. Txoriek eta errefuxiatuek zerikusirik ba ote duten galdetuko du norbaitek. Urdaibai Bird Centerrek jardunaldi berezia prestatu baitzuen hegazti migratzaileen inguruan eta bertan Senegalgo gazte ugari batu baitzen. Bizimodua hobetzeko bidea abiatu dute, horrek batzen ditu akaso.

Urdaibai Bird Center nazioarteko hegaldiak jasotzen dituen aireportua bezala antolatuta dago: seinaleak, irudiak, nazioarteko hizkuntzak, euskarazko eta gaztelaniazko oharrak, bidaiarien lekua, irteerak eta helduerak agertzen diren panelak, nazioarteko irudiak eta, batez ere, txoriak. Hegaztiak. Hamaika txori ezberdin batzen da Urdaibaiko Biosferaren Erreserban. Hegaztiei buruz jakiteko leku berezia da, baina, bereziki, hegazti ezberdinak bertako hezeguneetan zuzenean ikusteko paraje bikaina. Habia jartzen batzuk, arrantzan besteak, belarra ardien ondoan jaten edota txioka eta hegan. Horrez gain, nazioartean gero eta ezagunagoa den Urdaibai Bird Centerrek ekitaldi asko antolatzen ditu.

Hegazti Migratzaileen Nazioarteko Egunaren kariatara egitarau oparoa eskaini zuten eta Euskal Herritik Afrikarako bidea egiten duten arrano arrantzaleen berri izan genuen aurrekoan. “Urdaibai”, “Mandela” eta “Costeau” arranoen bidaie berri eman zigun Aitor Galarza biologo eta proiektuaren arduradunak. Busturialdeko jende asko batu zen hitzaldira, tartean Gernikan eta Bermeon bizi diren senegaldar ugari. Azken urteotan Afrika atzean utzi



eta asko kostata Europako bidea egin duten gazteak. Hegaz eta itsasoaz gain, di gugana helduak. Ondoan izan zituzten Busturialdeko Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Harrera taldeetako kideak.

Urdaibai Bird Centerrek proiektu ugari ditu eta azken urteotan arrano arrantzalearen inguruan buru-belarri murgilduta dago. Eskoziatik arrano jaioberriak ekarri eta Gautegiz Arteagan hazten dituzte. Hemen hasten dira hegaz, lehen arrainak harrapatzen eta bertokoak direla pentsatzen dute arrano txoek. Biologoek GPS seinalea ematen duen txip txiki bat lepoan jarri eta beraie hegaldien jarraipena egiten dute, batez ere Afrika aldera migratzen dutenean.

Aitor Galarza biologoa da proiektuaren arduraduna, eta berak ere txorien atzetik hainbat bidaia egin izan ditu

Arrano arrantzaleen inguruko proiektua dute esku artean Urdaibai Bird Centerren. Bertan hazten dira arranoak eta unea iritsitakoan, bidaia abiatzen dute, Afrikara normalean. Goiko irudian, hegazti migratzaileen egunean antolatutako egitarauan jasotako unea. Alboko orrialdean, «Urdaibai», «Mandela» eta «Costeau» arranoak.
URDAIBAI BIRD CENTER

Senegal eta Gambiara. Galarzak hitzaldian kontatu zuenez, «izugarria da arrano hauek arrantzan ikustea, atzpar bereziak dituzte eta hegan ari direla jauzi egiten dute uretara arrainak harrapatzeko. Orain, hemen, Urdai-bain, horrelako arrano ugari ditugu, eta gure ikergaia izan dira azken urteotan. Gaur hiru arranoen Afrikarako bidaia kontatuko dizuet».

«Eskoziatik Euskal Herrira 60 arrano jaioberri ekarri ditugu azken bost urteotan, hiru astez Urdai-bain hazi eta gero askatu egiten ditugu. Eta hemendik nora doaz? Bada, gehienak, Afrikara, %90 inguru Senegal eta Kamerun artea, zehazki», zehaztu zuen Galarzak.

Iberiar penintsula zeharkatu, itsaso gainetik Maroko aldera gurutzatu eta desertua gaindituta aurrera egiten dute Afrikako ipar-mendebaldeko kostal-

detik. Bitartean, Urdaibaiko txorien gu-
netik “Argos” satelliteak ematen dizkien
seinaleen bidez mapa batean kokatzen
dituzte txorien hegaldiak. Zehaztasun
guztiarekin jakiten dute non lo egin
duten, nondik zeharkatu duten deser-
tua edota zenbat orduz jarraian aritu
diren hegan.

URDAIBAI ARRANO

Aitor Galarzak hiru arranoren bidaia
kontatu zuen: “Urdaibai”, “Mandela”
eta “Costeau”. «‘Urdaibai’ 2013an aska-
tu genuen eta Dakarrerainoko bidea ja-
rraitu genuen satellite seinaleen bitar-
tez, Iberiar penintsulatik Marokora
egin zuen irailaren 15ean; Tindufetik
Saharar errefuxiatuen kanpamenduen
gainetik joan zen Mauritaniarantz, eta
handik sartu zen Senegalera. Irailaren
29an Dakarren ibili zen».

Aitor Galarza biologoa Senegalera jo-
an zen. Ez ditu bidaiok turista bezala
egiten, baina argazki kamera soinean
darama beti. Euskal Herritik Edorta
Unamuno eta Urdaibai Bird Centerreko
lagunek arranoen ibilbideen koordena-
dak ematen dizkiote horrelakoetan, eta
orduan ere “Urdaibai” arrano arrantzalea
nondik zebilen adierazi zioten. 2013ko
abenduarien 30ean, 07:30ean
puntuan, Aitor Galarzak “Urdaibai”
arranoa ikusi zuen, eta argazkia egin
zion. Alboan ikus daiteke argazkia.

«MANDELA» ETA «COSTEAU»

Antzeko bidaiak egin zituzten “Mande-
la” eta “Costeau” arranoek ere 2015ean
eta 2016an. Mandela arrano arrantzalea-
k Euskal Herritik Marokorako bidea
egin zuen hegaz, Atlas mendilerroa gu-
rutzatu eta Mauritaniako kostaldetik
Senegalerantz. Gambia errekaraino
heldu zen “Mandela” eta atzetik zihoan
Aitor Galarzari oso zaila egin zitzaion
“Mandela” arranoa zegoen lekura hel-
tzea. Gambiako mutiko batek lagundu
zuen biologo euskalduna, bertako jen-
de gehienak ingelesez ez dakienez, mu-
tikoa izan zen Galarzaren itsumutila.
Eta “Mandela” arranoaren argazkia egi-
tea lortu zuen Aitor Galarzak Gambian.

Bidaia horretako beste hainbat ar-
gazki eta pasadizo kontatu zituen guz-



tion aurrean. Eta Senegaleetik Euskal
Herrira heldutako etorkinek azalpenak
ematen zituzten, xehetasunak, errito-
en gaineko zehaztapenak, herrietako
ohiturak.

Bitxia da “Mandela” arranoaren pa-
sadizoa. Izan ere, eta harritzekoa ema-
ten badu ere, “Mandela” Marokoko kos-
tatik azkar heldu zen Senegalera, beste
inor heldu ez den denboran. Euskal He-
rritik abiatutako arrano arrantzaleak
gau eta egunez hegan egiteari ekin eta
24 orduz gelditu barik 1.040 kilometro
egin zituen jarraian. Urdaibai Bird Cen-
terreko biologo eta langileak harrituta
jarraitu zuten “Mandela”-ren martxa,
eta sinestezina bazirudien ere xeheta-
sun gehiagorekin aztertu zuten arra-
noaren ibilera. “The journal of Raptor
Research” aldizkari zientifikoan publi-
katu zuten 24 orduko hegaldiaren be-
rri. Urdaibai Bird Centerreko arduradu-
nek frogatu ahal izan dutenez, gaur
egun arte ez da lurretik gauez horren-
beste kilometroko migrazioarik doku-
mentatu.

“Costeau” 2016an abiatu zen Urdai-
baiko paduretatik Afrikanantz. Bi negu
eman zituen Senegalen, baobab eta
bertako zuhaitz artean, batetik bestera.
Eta bertan egin zizkion Aitor Galarzak
argazkiak Urdaibaiko arrano arrantzale
horri ere.

Aitor Galarza biologoak kontatu zue-
nez, 30 urte inguru bizi ohi dira aurre-
ra egitea lortzen duten arrano arran-
tzaleak, hegaldiak normalean bakarka
egiten dituzte, eta “Urdaibai” eta “Man-
dela” hil zirela jakin zuten arren, uste
dute “Costeau” etorriko dela berriz ere
Urdaibaira, bere seinalea galduta duten
arren. Afrikatik udaberrian etorri ohi
dira Euskal Herrira, eta gero zuzurra
da Urdaibai beraientzat. Hemen arrau-
tzak jarri eta kumeak izaten dituzte
normalean. Irailean joaten dira berriz
Afrikanantz, Senegalera gehienetan.

SENEGALDARRAK ADI-ADI

Urdaibai Bird Centerreko hitzaldian
egondako lau senegaldarrekin elkartu
gara egun batzuk geroago Gernikako
Astran. Hitzordura etorri dira Sagar Ca-
mara, Ousmane Sarr eta Pape Diouf se-

negaldarrak Bermeotik, Gernikan bertan bizi da Tamsir Ndioye. Sagar duela hiru urte heldu zen Bermeora, ikasten eta lanean ari da. Oso nota onak atera zituen helduak alfabetatzeko eskolan eta orain Mungiako Lanbide Heziketa ikastetxean ari da elektrizitatea ikasten. Kolean saltzen ere aritzen da. Eta edozein lan egiteko prest dago. Neskalaguna ere etorri zen Euskal Herrira eta haur bat dute. Baina neskak Senegalera itzultzea erabaki zuen, eta hara begira dago orain Sagar, bere alaba eta emaztea han baititu. Berak, berriz, hemen jarraitzen du. Ezin duela etsi dio. Ez dute paperik eta lan txukunik ere ez. Baina ezin dira lotsatuta herrira itzuli. Europara etorri eta zerbait lortu behar dutela kontatzen du.

Ondotik jarraitzen ditu Sagarren esanak Pape Dioufek. Arrantzalea izan zen umetatik Senegalen. Ez da aspaldi etorri zela. Senegaldik Marokora hegaz heldu zen bera ere, hegazkinez. Bost ordu eman zituen pateran itsasoa gurutzatzen eta Tarifan eman zituen hamalau egun. Duela gutxira arte Almerian egon da lanean, baina diru gutxi irabazten zuela-eta berriro itzuli da Bermeora. Ahal duen lanak egiten aritzen da bera.

Harrituta geratu dira senegaldarrak hegazti migrarien bidea jakitean. Zeinen erraz egiten duten Euskal Herriatik Senegalerako bidea txoriek. Eta nahi dutenean berriz itzuli. Beraiek hemen daude, baina ezin dira Senegalera joan, paperik ez dutelako lortu oraindik. Ez itzultzea litzateke hori.

Ousmane ere arrantzalea zen. Urte asko eman zituen itsasoan lanean. Pe-



Ezkerretik eskuinera, Sagar Camara, Pape Diouf, Osmene Sarr eta Tamsir Ndioye, Gernikako Astragaztetxean. Guztiek Senegaldik Euskal Herrirako bidea egin dute. Aritz LOIOLA | FOKU

run lan egiteko ere bazuen aukera. Baina Perura joateko hegaldia Barajasen gelditu zenean, bere lagun batzuekin batera bide berri bati ekitea erabaki zuen. Txoriek bezala Afrikatik Europarako bidea hegaz egin zuen. Barajasen ez zuten zorte txarrik izan eta Madrileko Lavapies auzora iritsi ziren. Ez zuten dirurik. Baina kontaktu batzuk bai. Madrildik Bilbora deitu eta berehala harrera egin zieten Bizkaiko hiriburuan. Bermeon daude geroztik. Itsasora noiz aterako zain, paperak noiz edukiko, aukera berri baten zain. Etxera dirua bidali eta hemen irauteko.

Tamsir Ndioye lan eskaintza batekin abiatu zen Senegaldik Marokora. Serigrafiako tailer baten lan egiteko ametsa zuen han. Joan zen lanera Maroko-

ra, baina iruzur egin zion jabeak. 2017a zen. Sei hilabetez jardun zuen lanean. Ez zuen nahikoa irabazi eta utzi eta bidean jarraitzea erabaki zuen. Tangerre-ra joan zen eta basoan ezkutatu, aukera berriaren zain. Bederatzi hilabetez bizi izan zen ezkutuan basoan, 2018ko ekainean hesia gainditu eta Malagatik Bilborako bidea egin zuen arte. Gernikara etortzea eskaini zioten harrera taldeetan eta Gernikan okupatuta dagoen Bloke Laranja eraikinean bizi da egun beste etorkin batzuekin batera. Hamar errefuxiatu bizi dira bertan. Senegaldarrak gehienak, baina badira hiru kamerundar eta Gineako beste bat. Gernikako Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko kideen laguntzarekin serigrafia tailerra antolatu du Astran bertan. Eta herriko elkarte, taberna eta taldeentzat kamisetak egiten aritzen da. Bere ametsa gauzatzen ari da. Bizitza antolatzen ari da eta Gernikan jarraitu nahi du.

Hegazti migratzaileen hitzaldian adiadi egon ziren eta orain beraien bizitza kontatu digute lau lagunok. Afrika maite dute, bere herria ez du inork gogoz uzten, baina etorkizun hobe baten bila etorri dira. Ez dute lotsatuta itzuli nahi eta paperak aldarrikatzen dituzte, eta, txorien antzera, Europatik Afrikara libre itzuli nahiko lukete.

Harrituta geratu dira senegaldarrak hegazti migratzaileen bidea jakitean. Zeinen erraz egiten duten Euskal Herriatik Senegalerako bidea txoriek. Eta nahi dutenean berriz itzuli. Beraiek ezin dute askatasun horrekin mugitu

Gernikan okupatuta dagoen Bloke Laranja eraikinean bizi da Tamsir Ndioye, beste etorkin batzuekin batera. Hamar errefuxiatu bizi dira bertan, senegaldarrak gehienak. Serigrafia tailerra antolatu dute Astran eta pozik dago